



## TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2020KO MAIATZA

**Maiatza lehorra eta ohikoaren artekoa izan zen, eta tenperaturari dagokionez, erabat beroa. Izan ere, kostaldeko eskualdeetan inoiz izan den maiatzik beroena izan zen, eta gainerako tokietan 2017ko maiatzarekin dago lekurik gorenean. Eguzkia izan zen protagonista nagusia, izan ere intsolazioa ohi baino %30 handiagoa izan zen. Muturreko fenomeno meteorologikoengatik oso abisu gutxi igorri ziren, eta horiek hilabetearen lehen herenean pilatu ziren. Abisurik gehienak prezipitazio handiagatik izan ziren. Hilaren 4a horrelako egun bat izan zen, eta horrez gain udaberriko lehen abisua igorri zen tenperatura oso altuengatik eta enbata frontalagatik.**

### Prezipitazioa

Maiatza, ia lurralde osoan, lehorra edo ohikoa izan zen, baina ohiko prezipitazioaren alderatuz desbiderapen negatiboarekin gune gehienetan. Ekaitz giroa nagusitu zenez, berezitasun asko aurki ditzakegu. Horrela, Ebro ondoko eskualdean eta Deba barrenan kalifikazioa hezea izango litzake; aldiz, barnealdean mendebalderantz dauden eskualdeetan, Salvada-Orduña mendialdean eta Bilbo Handian oso lehorra izango litzake.

Prezipitazio kopuru handienak, 100 mm-tik gora, Gipuzkoa ekialdean pilatu ziren (Eskas 176.6 mm, Behobia 155.8 mm, Ameraun 105.6 mm), Gipuzkoako kostaldetik hurbil dauden tokietan (Aizarnazabal 137.4 mm, Oiartzun 122.9 mm, Miramon 116.7 mm) eta Debako bailaran (Altzola 132.6 mm, Aixola 126.2 mm). Bizkaian atalase hori Urkiola mendialde inguruan dagoen estazioren batean soilik gaintu zen (Otxandio 106.6 mm, Mallabia 103.4 mm, Urkiola 100.7 mm) eta kostaldean (Berriatua 103.1 mm). Kopuru txikiak, 50 mm baino gutxiago, Araba hegoaldean (Moreda 18.8 mm, Kanpezu 19.3 mm), Savada-Orduña mendialde inguruan (Orduña 24.1 mm, Saratxo 35.5 mm) eta, azpimarragarriena dena, Bilbo Handian (Galindo 40.9 mm, Mungia 43.1 mm) pilatu ziren.

Euri-egun kopurua ( $\geq 1$  mm) zazpi ingurukoa izan zen, espero zitekeena baino hiru gutxiago. Euri-egun gehienak lehen hamabostaldian izan genituen, eta hilaren 23a. Hiru egunetan prezipitazioa oso ugaria izan zen ( $\geq 30$  mm), eta hirurak jarraian izan ziren, 9tik 11ra.

Hilaren 9an, arratsalde-gauean Araba hego-mendebaldetik trumoi-ekaitzak sartu ziren eta zaparrada handiak bota zituen (Kapildui 29.2 mm/h, Zambrana 22 mm/h, Tobillas 22.8 mm/h). Trumoi-ekaitzak itsasorantz mugitu ziren eta zaparrada handienak Debako bailaran (Urkulu 25.8 mm/h, Arrasate 25.7 mm/h, Altzola 28.3 mm/h) eta inguruetan (Aizarnazabal 28.2 mm/h) bideratu ziren. Egun amaierarako lerro imaginario horretan pilatutako prezipitazioa oso ugaria izan zen (Altzola 55.1 mm/, Aixola 48.1 mm, Arrasate 42.2 mm).

Hilaren 10ean goizaldean zaparradek jarraipena izan zuten; zaparraden intentsitatea antzekoa izan zen, baina zaparradak han-hemenka sakabanatu



ziren kantauri isurialdean (Behobia 29.9 mm/h, Ereñozu 29.9 mm/h, Amorebieta 23.9 mm/h, Cerroja 19.2 mm/h). Egunak aurrera egin ahala, prezipitazioa iraunkorragoa izan zen eta Gipuzkoa ekialdean 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Ereñozu 87.5 mm, Eskas 84.3 mm, Behobia 80 mm, Oiartzun 76.1 mm). Hilaren 11an, Gipuzkoa ekialdean euria egiten jarraitu zuen, nahikoa sarri, baina gainerako tokietan atertzera egin zuen (Eskas 42.5 mm, Behobia 37 mm, Oiartzun 20.6 mm).

**Taula 1: Azken urteetan maiatzean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
<b>Deusto</b>	44.6	62	66.5	51.8	42.8	52.6	43.1	105.2	56.3	49.9
<b>Lasarte</b>	104.2	164	114.3	70.7	83.8	75.6	102.4	222.2	109.2	63.1
<b>Arrasate</b>	89.5	131.7	81.3	52.5	59.7	100.7	102.9	163.4	91.2	72.9
<b>Abetxuko</b>	56.9	46.8	53.2	41.7	32.4	16.2	35.0	66.3	46.7	41.0
<b>Párganos</b>	40.5	31.1	47.5	31.5	22.1	2.9	25.1	31.0	40.7	28.6

## Temperatura

Batez besteko temperaturari dagokionez eta 1981-2010 denboraldia kontuan hartuz, maiatza erabat beroa izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura 17-18 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 16 °C-ra hurbildu zen; ohiko batezbestekoa baino 2.3 °C altuagoa. Gauzak horrela, kostaldeko eskualdetan serie klimatologikoetako maiatzik beroena izan zen. Gainerako eskualdetan 2017ko maiatzarekin batera elkarbanatuko luke errekorra.

Udaberrian ohi bezala, hilabeteko lehen herenean temperaturak bat-bateko aldaketa handiak jasan zituen, bereziki kostaldean, temperatura maximoen igoera eta jaitsiera nabariek. Horren adibide, hilaren 4an gertatu zena. Foehn efektua oso nabarmena izan zen egun hartan, eta kostaldean 30 °C-ak aise gainditu ziren (Oleta 34.2 °C, Mungia 33.5 °C, Arteaga 33.2 °C, Higer 32.1 °C). Denboraldiko lehen abisu horia igorri zen temperatura oso altuengatik kantauri isurialdean. Baina, gero, arratsaldean, enbata frontala izan zen eta oso denbora gutxian 12 °C jaitsi zen temperatura.

Hilaren 10etik 15era bitartean hilabeteko denboraldirik hotzena izan zen, eta eguneko aldaketa termiko txikiak izan zituen. Hala ere, temperatura minimo absolutuak egun batzuk geroago neurtu ziren. Hilaren 17an kostaldean; egun horretan soilik jaitsi zen temperatura 10 °C-tik. Hurrengo egunean barnealdean neurtu ziren minimo absolutuak eta ia izotz egin zuen (Tobillas 1.1 °C, Pagoeta 1.7 °C, Albaina 2.1 °C, Iturrieta 2.4 °C, Salvatierra 3 °C).

Hilaren amaierara arte temperaturak nabarmen egin zuen gora, hilaren 23an izan ezik, egun hartan berriro ere asko jaitsi zen temperatura. Uda sasoiko giroa izan



genuen egunez, baina gauetan temperatura uda sasoiaren ez bezala jaitsi zen, izan ere lurzoruan ez goen beroa pilatuta. Kantauri isurialdean temperatura maximo absolutuak hilaren 28an neurtu ziren (Aranguren 34.9 °C, Alegia 33.5 °C, Galdakao 33.4 °C, Gardea 33.1 °C, Iurreta 32.1 °C, Miramon 31.1 °C). Mediterraneo isurialdean beste egun batzuetan neurtu ziren: hilaren 21ean (Moreda 32.2 °C, Kanpezu 31.4 °C, Abetxuko 30.7 °C) eta 29an (Zambrana 31.1 °C, Espejo 30.8 °C).

Azpimarratu behar da, baita ere, urte sasoi horretan ohikoa dena baino handiagoa izan zela intsolazioa, gutxi gorabehera ohi baino %30 eguzki ordu gehiago. Hilaren 17tik aurrera egun askotan egon zen oskarbi.

**Taula 2: Maiatzean, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	17.8	14.7	14.6	17.2	16.7	16.5	14.9	13.0	17.1	17.4
Lasarte	17.3	13.2	14.3	16.8	15.5	15.5	14.1	12.0	16.4	16.9
Arrasate	16.1	12.0	12.8	16.4	14.0	14.5	12.7	10.2	15.0	15.6
Abetxuko	15.7	11.9	12.3	15.8	13.6	14.5	12.7	10.1	14.4	15.0
Párganos	16.7	13.0	13.5	17.1	14.1	15.9	13.5	10.6	15.4	16.3

## Haizea

Haizeari dagokionez, hilabetea ondo bereizitako bi zatitan banatu zen. Hilabeteko lehen herenean depresioak nagusitu ziren Bizkaiko golkoan eta tarteka Europa erdialdeko antizikloia sartu zen Kantauri ekialdera. Horrela, haizeak batzuetan mendebal/ipar-mendebaldetik jo zuen (depresioak) eta beste batzuetan hego-ekialdetik (antizikloia). Haizea nahiko indartsua izan zen, eta egun askotan haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren. Nahiz eta giro nahasi eta haizetsua nagusitu, haize-boladek 100 km/h-ko abiadura egun batean soilik gainditu zuten, hilaren 4an, enbata izan zenean.

Hilaren 13tik aurrera, presio altuak gailendu ziren Europa mendebaldean eta EAEn presio-gradiente oso txikia izan zen; une batzuetan aintzira barometrikoa izan genuen. Tokian tokiko haizeak nagusitu ziren orduan, eta goizaldetan eta gauetan haizeak ia ez zuen indarrik izan. Arratsaldetan ipar/ipar-ekialdeko haizea nagusitu eta indartu egiten zen, bereziki kostaldean eta Araba barnealdean, bolada indartsuekin, nahiz eta ez ziren oso gogorrak izatera iritsi. Hilabete amaierara arte horrela jarraitu zuen haizeak.

Hilabete osoan haizearekin erlazionatutako gertaera bakarra da azpimarragarria. Hilaren 4an, arratsaldean, hego-ekialdeko haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren, bereziki barnealdean. Egund oso beroa izan zen eta arratsalde amaieran, fronte hotz baten etorrerarekin batera, enbata frontala izan zen. Haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren itsasertzean eta 12 °C inguruko tenperatura jaitsiera



eragin zuen. Enbataren hasieran neurtu zen hilabeteko haize-bolada gogorrena, Punta Galean 121 km/h; gainerako datuak ere esanguratsuak izan ziren (Matxitxako 106.2 km/h, Santa Clara 112.9 km/h, Jaizkibel 101.3 km/h). Kostaldetik hurbil dauden beste hainbat tokitan ere nabaritu zen frontearen eragina: Deusto 85.7 km/h, Derio 83.9 km/h, Mungia 85 km/h.

## Analisia

### Maiatzak 1

Maiatza giro ezegonkorrarekin hasi zen. Fluxu zonal indartsu baten eraginpean egon ginen eta hainbat frontek zeharkatu zuten Kantauri. Euria egin zuen, eta trumoi-ekaitz handi batzuk ere izan ziren arratsaldean barnealdean.

### Maiatzaren 2tik 7ra

Maiatzaren 2an eguraldia egonkortu egin zen. 500 hPa-eko mailan Afrika iparraldetik gailur subtropikal bat sartu zen Iberiar penintsulara, 850 hPa-eko mailan tenperatura altuekin (hilaren 4an 22 °C-ra iritsi zen tenperatura). Gainera, hegoaldeko haizea ibili zen, beraz denboraldi hartan tenperatura oso altuak izan genituen, bereziki hilaren 4an; orduan kantauri isurialdeko zenbait lekutan 34 °C-ra iritsi ginen. Orduetik aurrera gailurraren mendebaldetik ibar sakon bat askatu zen. Aska hura pixkanaka sakontzen joan zen eta presio altuak ekialdera bultzatu zituen. Nahiz eta egonkortasuna pixkanaka txikitzen joan, hegoaldeko haizearen eraginez giro eguzkitsuarekin jarraitu genuen, erdi mailako hodei eta goi-hodei batzuekin.

### Maiatzaren 8tik 16ra

Hilaren 8tik aurrera eguraldia nabarmen aldatu zen, presio baxuen eraginpean egon ginen. 500 hPa-eko mailan mendebaldeko aska sakondu egin zen, eta hilaren 9an eta 10ean Iberiar penintsulan kokatu zen. Askaren isla gisa, lurrazalean, ongi definitu gabeko presio baxuen eremu zabal izan genuen, eta eremuari loturiko hainbat ezegonkortasun lerro eta fronte. Eguraldi aldaketa bereziki hilaren 9an nabaritu zen, izan ere zaparrada trumoitsu handiak bota zituen, eta arratsalde-gauean txingorra ere bai. Adibidez, San Prudentzioko estazioan 44 mm pilatu ziren ordubeteetan. Hilaren 10a ere korapilotsua izan zen; Frantziako Landetan bigarren mailako depresio txiki bat sortu zen eta lurrazalean ipar-mendebaldeko haizea nagusitu zen. Orduan ere zaparrada handiak bota zituen eta Gipuzkoa ekialdean 80 mm baino gehiago pilatu ziren. Egun hartan asko jaitsi zen tenperatura, maximoak 15-17 °C artekoak izan ziren, eta aurreko egunean 25 °C-ak gainditu ziren leku askotan. Hilaren 11tik 16ra bitartean Iberiar penintsula osoan eguraldi ezegonkorrarekin jarraitu genuen. Presio baxuak penintsulan zentratu ziren eta presio altuak Britainiar uharteetan. Alabaina, EAEn ezegonkortasuna ez zen aurreko egunetako bezain handia izan. Euria egin zuen eta zaparrada batzuk ere bota zituen, baina euria urriagoa izan zen. Azpimarratzekoa egun horietan izan genuen tenperaturaren jaitsiera. Egun



hotzena hilaren 15a izan zen: maximoak barnealdean 12-13 °C inguruak izan ziren eta 15 °C inguruak kostaldean.

### Maiatzaren 17tik 31ra

Maiatzeko bigarren hamabostaldian presio altuak nagusitu ziren. Hilaren 17tik aurrera Atlantikotik sartu ziren Iberiar penintsulara eta, bitartean, presio baxuak Mediterraneo erdialdera mugitu ziren. 500 hPa-eko mailan, Afrika iparraldean jatorria zuen gailur bat indartu eta European gailentzen joan zen. 850 hPa-eko mailan tenperatura 18 °C-ra igo zen hilaren 21etik 22ra bitartean eta lurrazalean 30 °C-tik gorako balioak neurtu genituen hilaren 21ean. Denboraldi hartan egun bakarrean egin zuen euri pixka bat, hilaren 23an ipar isurialdean, Kantauritik fronte txiki bat pasa zenean. Hilaren 24tik aurrera eguraldia egonkorra izan zen; izan ere ia Europa mendebalde osoa bere baitan hartzen zuen blokeo egoera bat sortu zen. Gero Omega konfigurazioan bilakatu zen; bere ardatza Afrika iparraldetik Britainiar uharteetara luzatuta egon zen. Lurrazalean antizikloi zabal eta indartsu bat izan genuen, erdialdean 1039 hPa-eko presioarekin. Hilaren 24an Frantzia erdialdera mugitu zen, eta hilaren 28an eta 29an Ipar itsasora. Konfigurazio harekin adbezkio beroa izan genuen, Afrika iparraldetik zetorren aire masa; 850 hPa-eko mailan 17 °C-ra iritsi zen tenperatura eta lurrazalean, hilaren 28an, 30 °C-tik gora igo zen tenperatura ia EAE osoan.






## Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2020ko maiatzeko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estación	Temp. med. °C	Temp. máx.med. °C	Temp. máx.abs. °C	Temp. mín.med. °C	Temp. mín.abs. °C	Días helada	Prec. acum. l/m <sup>2</sup>	Prec. máx.día l/m <sup>2</sup>	Días prec.
Deusto	17.8	22.2	32.9	13.9	9.8	0	44.6	13.4	6
Lasarte	17.3	22.1	31.8	12.9	9.3	0	104.2	47.5	8
Arrasate	16.1	22.9	30.4	10.0	4.6	0	89.5	42.2	7
Abetxuko	15.7	23.6	30.7	14.7	4.0	0	56.9	25.7	8
Párganos	16.7	22.8	29.7	14.7	4.1	0	40.5	19.8	7



## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
  Temperatura minimoa
  Batez besteko tenperatura
  Temperatura maximoa




## Prezิปitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa  
Precipitación observada




Prezิปitazio normala  
Precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko desbideratzea  
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko portzentaia  
Porcentaje respecto a la precipitación normala





## Muturreko egoerak

**Maiatzean 6 abisu hori igorri ziren, denak hilabetearen lehen herenean. Abisuen zergatien arabera honela xehatu ziren. 3 prezipitazio handiagatik, 1 prezipitazio iraunkorragatik, 1 enbatagatik eta beste bat temperatura oso altuengatik.**

- Fronte batek zeharkatu zuen Kantauri itsasoa hilaren 1ean eta Kantauri ekialdean zaparradak bota zituen, arratsaldean trumoitsuak. Hasieran zaparrada trumoitsuak kantauri isurialdean eragin zuten gehienbat, baina arratsaldeak aurrera egin ahala Ebro bailararaino iritsi ziren. Iluntzean zaparrada handiak bota zituen Navarreteko estazioan. Gauean trumoi-ekaitzak desegin egin ziren eta EAE osoan atertu zuen.

Estazioa	Prezipitazioa, hamar minutuan, hilak 1 (mm)	Ordua UTC
Navarrete	7.9	18:30
Venta Alta	5.3	17:00
La Garbea	5.1	16:40

Estazioa	Prezipitazioa, ordubeteen hilak 1 (mm)	Ordua UTC
Navarrete	17.9	19:10

- Hilaren 4an Afrika iparraldetik aire berozko mihi bat hedatu zen Iberiar penintsulara; 850 hPa-eko mailan 20 °C neurtu ziren. Atlantikoan, Iberiar penintsularen ipar-mendebaldean, zegoen depresio baten ondorioz, Kantauri ekialdean hegoaldeko haizea nagusitu zen. Hegoaldeko haizea harro ibili zen egun osoan. Uda sasoiko temperatura balioak izan genituen, izan ere 30 °C-ak gainditu ziren ia kantauri isurialde osoan; Bizkaiko kostaldean 33-34 °C-raino iritsi zen temperatura. Arratsaldeko azken orduetan depresio hari loturiko fronte hotz bat iritsi zen Kantauri ekialdera, eta kostaldean bat-batean egin zuen haizek ipar-mendebaldera. Enbatak ordu eta erdi iraun zuen gutxi gorabehera eta itsasertz osoan haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren. Punta Galeako estazioan, enbataren hasieran, haize-bolada bortitza neurtu zen. Enbatak temperatura 12 °C inguru jaitsarazi zuen kostaldean. Horrez gain, kalte batzuk ere eragin zituen; adibidez, zuhaitz bat erori zen Bilbon, Don Diego Lopez Haro kale nagusian.

Estazioa	Temperatura maximoa, hilak 4 (°C)
Oleta	34.2
Mungia	33.5
Arteaga	33.2
Berriatua	33.2





Deusto	32.3
Lasarte	31.8
Abetxuko	27.1

Estazioa	MIM haize-boladak, hilak 4 (km/h)	Ordua UTC
Punta Galea	121	19:00
Santa Clara	112.9	20:30
Matxitxako	106.2	19:20
Jaizkibel	101.3	20:40
Deusto	85.7	19:20
Mungia	85	19:20
Ordunte	84.7	19:20
Derio	83.9	19:30

*Astelehena, hilak 4: Abisu Horia temperatura oso altuengatik kostaldean eta Kantauri zonaldeko barnealdean 12etatik 20etara (ordu lokala). Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Enbata 20etatik 23etara (ordu lokala). Abisu Horia prezipitazio handiagatik 21etatik 24etara (ordu lokala)*

- Hilaren 8an aska bat hurbildu zen Bizkaiko Golkora. Iberiar penintsularen ipar-mendebaldera iritsi zenean askatu egin zen eta hilaren 10ean Iberiar penintsulan sartu zen. Egun horretan goi-geruzetako depresio askea betetzen joan zen. Horregatik, hilaren 8an, 9an eta 10ean ezegonkortasuna handia izan zen, eta EAEn zaparrada trumoitsuak bota zituen. Hilaren 8an, aska hurbiltzen zihoan heinean zaparradak gero eta handiagoak bota zituen eta Kantauri ekialdean ezegonkortasuna handitu egin zen. Arratsalde-gauean zaparrada txiki-ertainak bota zituen; handiak izatera ez ziren iritsi, baina zenbait lekutan benetan mardulak izan ziren zaparradak (Sangroniz, 10.1 mm en 10 minutos). Gauean ekaitz-guneek indarra galdu zuten eta hilaren 9an, egunaren lehen partean euri txikia egin zuen. Alabaina, arratsalde-gauean euria indar gehiagoz egin zuen eta zaparrada handiak bota zituen. Gainera, gauean, aurreko egunean ez bezala, hilaren 10ean goizaldean zaparradek jarraipena izan zuten. Hilaren 10ean, depresioa Iberiar penintsularen iparraldean kokatu zen, eta kantauri isurialdean prezipitazioa iraunkorra izan zen. Euriaren intentsitatea ez zen goizaldean bezain handia izan, baina Gipuzkoa ekialdean 60 mm baino gehiago pilatu ziren eta zenbait lekutan 80 mm inguru. Hilaren 11an euri kontuekin jarraitu zuten ekialdean, baina gainerako tokietan atertzera egin zuen. Ezegonkortasunak han jarraitu zuen, baina goi-geruzetako depresio askea bete egin zenez, prezipitazioa ez zen iraunkorra izan, zaparradak noizbehinka bota zituen.

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 8 (mm)	Ordua UTC
Sangroniz	10.1	17:50
Arboleda	6.7	19:50
Cerroja	5.6	19:40



Deusto	5.4	17:40
Subijana	5.2	17:50

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 9 (mm)	Ordua UTC
Aizarnazabal	15.4	17:40
Kapildui	15.3	19:50
Tobillas	12.8	16:20
Gorbea	12.1	16:10
Iurreta	11.5	16:50
Altzola	10.5	20:00
Espejo	10.1	22:10

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 9 (mm)	Ordua UTC
Kapildui	29.2	20:10
Altzola	28.3	20:30
Aizarnazabal	28.2	18:30
Urkulu	25.8	17:40
Arrasate	25.7	18:30
Tobillas	22.8	16:50
Zambrana	22	15:40
Oñati	21.6	18:00
Aixola	21.6	20:10
Gorbea	18.7	16:40
Arkauti	16.8	17:10

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 10 (mm)	Ordua UTC
Urkizu	12.9	00:40
Amorebieta	10.7	00:50
Balmaseda	10.3	05:30

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 10 (mm)	Ordua UTC
Behobia	29.9	07:30
Ereñozu	29.9	06:40
Amorebieta	23.9	01:30
Ameraun	21.8	06:00
Otxandio	20.6	01:10
Urkizu	19.4	01:10
Cerroja	19.2	05:40
Bidania	19	06:20
Urkiola	18.7	01:30
Miramón	18	06:50



Estazioa	Pilatutako prezipitazioa hilak 10 (mm)
Ereñozu	87.5
Eskas	84.3
Behobia	80
Oiartzun	76.1
Ameraun	75.5
Miramon	69.2
Añarbe	68
Bidania	67.5

*Ostirala, hilak 8: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 18etatik 24etara (ordu lokala)*  
*Larunbata, hilak 9: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara (ordu lokala)*  
*Igandea, hilak 10: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik*  
*21etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik*  
*24etara (ordu lokala)*



## Terminologia

*Batez besteko tenperatura:* hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . tenperatura, urterik beroenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . tenperatura, urterik hotzenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke:

[http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual\\_estilo/eu\\_9900/eu\\_manual.html](http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html).

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatu gabe daude.